

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GASTEIZKO UDALAREN 2020KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Joan den ekainaren 30ean Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen Gasteizko Udalaren, bere hiru erakunde autonomoen eta lau sozietate publikoen 2020ko ekitaldiko ekonomia eta finantza kudeaketaren fiskalizazio txostena; erakunde autonomoak dira: Ingurugiro Gaietarako Ikastegia, Luis Aramburu Udal Musika Eskola eta José Uruñuela Udal Dantza kontserbatorioa; eta lau sozietate publikoak dira: AMVISA, TUVISA, ENSANCHE 21 ZABALGUNEA eta GILSA.

2020ko ekitaldiko **Urteko kontuei** dagokienez, Epaitegiak **aldeko iritzia** plazaratu du, salbuespen batekin, ezin zehaztu izan baitu ENSANCHE 21en balantzean jasotako 30,2 milioi euroren balioa duten izakinen gauzatze-balioa.

Fiskalizatutako Kontu Orokorretik eratorritako **finantza-egoerari** dagokionez, Epaitegiak adierazi du Udalak Covid-19tik eratorritako osasun-larrialdiak bere aurrekontuko sarreretan eragindako inpaktu negatiboa arintzea lortu duela, gastuari eusteko politiken bidez. Politika horien bidez, aurrezki garbia positiboa izatea eta finantza-maileguak aldatzea lortu da, zorraren maila handituz. 2020ko abenduaren 31n likidatutako Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina 2021eko ekitaldian kreditu txertaketan finantzaketa iturri modura erabili da % 90,8an.

Udalak, haren erakunde autonomoek eta sozietate publikoek zuzentasunez **bete dute** 2020ko ekitaldian beren jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duen **lege-araudia**, eta unean uneko akatsak antzeman dira administrazioko kontratazioan (atzerapenak izan dira 6 kontraturen lizitazioan eta ondorioz, gastua gauzatu da mugaeguneratutako kontratuetan, eta behe-tentsioko energia-hornidura zuzenean kontratatu da).